

# "Errepresioa eta Giza Eskubideak Francoren Garaian"

Gu Harold eta Adei gara, eta bideo hau prestatu dugu Maravillas Lamberto nor izan zen eta zer gertatu zitzaion azaltzeko.

Maravillas Lambertoren kasua garrantzitsua da, faxistek zer egin zuten azaltzen duelako. Inoiz galdetu al diozue zeuen buruari nola jokatu zuten faxistek Francoren garaian?

EITB-n irakurri dugunez, Maravillas Lamberto 1922. urtean jaio zen. 14 urte zituela, bere etxera joan ziren bi falangista Maravillasen aitaren bila. Udaletxera joatera behartu zuten. Maravillasek aita berriro ikusiko ez zuen beldurrez, harekin joateko eskatu zuen eta falangistek baimena eman zioten.

Udaletxean, bere aita bere aurrean hil zuten eta bera bortxatu eta hil zuten. Larragan bizi ziren pertsonak esan zuten bezala, haren gorpua txakurretara bota zuten.

Ahizpa lekaima zela, beste lekaimak esan zioten aita hil bazuten, zerbait egin zuelako izango zela eta berak erantzun zien: Orduan, zer egin zuen nere ahizpak bortxatu eta hil zezaten?

2018ko otsailaren 8an inauguratu zen Lezkairu auzoan dagoen Maravillas Lamberto plaza. Ekitaldia Lamberto omentzeko eta gogoratzeko pentsatua izan zen, Nafarroan frankismoaren errepresioa hobekien irudikatzen duen pertsonaietako bat izan baitzen.

Ikertzen jarraitu dugu eta jakin dugu bere kasua ez dela bakarra eta Istorio hau bi abeslarik ere kontatu dute, Gorka Urbizuk eta Fermin Valenciak.

Kantak:[https://youtu.be/8\\_C7Cpo9YhE?si=X-6YalzF7dgm\\_F3y](https://youtu.be/8_C7Cpo9YhE?si=X-6YalzF7dgm_F3y) eta [https://youtu.be/pO\\_yltxlZq0?si=xcEillZAnL7rBMD9](https://youtu.be/pO_yltxlZq0?si=xcEillZAnL7rBMD9)

Orain badakigu Maravillas Lamberto zergatik den errepresioaren sinbolo.